

EDITORIALA

Legez kanpo

Estatuko Gobernuak bi alderdi politikoak legez kanpo uzteko erabakia hartu du. Horretarako, estatuko fiskaltza eta abokatu-tzari agindu zehatzak eman dizkio legez kanporatze hori ahal den azkarren gauza dadin. Ezin uka erabakiaren atzean PSOE eta PP-k burutu zuten burdinazko ituna dagoela eta, haren ondorioz, indarrean jarritako Alderdien Legea. Eskubideen urraketan irekita-ko bideari –aurreko legez kanporatzeak, 18/98 sumarioa, Egunkaria, torturak eta abar luze bat– jarraipena ematen dio erabaki honek, eta ez dago zalantza izpirik ere azkenak ez direla izango pentsatzeko. Bide horretan, ñabardura gutxi dago aipatzeko PSOE eta PPren artean.

Datozen hauteskundeetan alderdi horien partaidetza galarazteko interesa agerikoa bada estatutik, oso larritzat jo behar da partaidetza politikoa ukatzea milaka herritarren botoak jaso dituzten alderdiei. Demokratikoki onartezina delako honelako prozedurak burutzea, eta nagusiki, euskal gizarteak espresio bide politikorik behar dituelako eszenatoki politikoan.

Estatuko estrategiak, besteren artean, hauteskudetako emaitza politikoa desitxuratzea du helburu. Horretarako, estrategia horrek beste aldean, alde armatuan, jarrera itxia behar du, sakoneko estrategiak berrikusteko borondaterik ez duen jarrera, alegia. Ondotxo dakite estatuko alderdiek beren interesak arriskuan jar daitezkeela baldin eta bide zibil eta demokratikoak defendatzen ditugunok elkarrekin plangintza zehatza adosteko gai bagara. Hor dago gakoe-tako bat, funtsezkoa eta bete beharrekoa.

Politika errepresiboari aurre egiteko gure konpromisoa berretsi egiten dugu, baina horrekin batera beharrezkoa deritzogu erantzun zehatzaz gain bestelako dinamika politikoa irekitzea. Eta horrek borroka armatuaren birplanteaketa estrategikoa exijitzen du bihar baino orain. Batetik, estatuaren politika bortitza eta basatia biluztu eta agerian uzteko eta, bestetik, abertzaleen arteko lankidetzaz ahalbidertzeko.

Las normas de servicios sociales en Hego Euskal Herria no reconocen ni garantizan derechos básicos a toda la ciudadanía

“HAY DERECHOS SOCIALES SIN CUBRIR”

Tanto en Navarra como en la CAPV se está trabajando en el desarrollo de la nueva normativa de servicios sociales. Sin embargo, el grado de desarrollo es diferente. En Navarra, la ley fue aprobada en diciembre de 2006, y actualmente se está elaborando la Cartera de Servicios Sociales. En la CAPV, por su parte, aún no se ha aprobado la Ley pero ya se ha elaborado el Anteproyecto. Entrevistamos a Imanol Pascual, miembro del Gabinete de Estudios, para que nos haga una valoración de ambas normativas.

-¿Qué elementos destacarías de las normativas analizadas?

-Matices aparte, lo determinante de ambas es que no hay reconocimiento y garantía de derechos sociales para las personas. Utilizan mucha propaganda para decir lo contrario, declaran grandes principios, pero en el fondo no garantizan la cobertura de las necesidades de las personas a través de los servicios sociales (ayuda a domicilio, centros de día, plazas en residencias...).

-¿En qué se concreta esto?

-Inmediatamente de establecer el principio de universalidad, lo limitan mediante la exigencia de requisitos marcadamente restrictivos; de esta manera se impide el acceso a esas prestaciones de determinada gente.

Lo mismo sucede con la declaración del carácter subjetivo de la norma. Se afirma que se podrá recurrir vía administrativa y jurisdiccional el cumplimiento de los derechos que se reconocen. Sin embargo, ésto no es cierto, ya que el reconocimiento de estos derechos queda sujeto al cumplimiento de una serie de requisitos; requisitos que, además, no se especifican en la Ley.

Hay que destacar, por otro lado, que se restringe a las personas inmigrantes extracomunitarias el acceso a estos derechos y, por tanto, se les discrimina.

-¿Qué persiguen en el fondo?

-Pretenden ocultar algo que la gente percibe con mucha nitidez, y no sólo quien lo padece más directamente y sus familiares: más del 75% de las personas con discapacidad no ven cubiertas sus necesidades sociales.

Siendo éste el resultado real de sus políticas, no logran esconder con propaganda sus verdaderas intenciones. Establecen el copago, haciendo que la persona usuaria tenga que pagar por recibir el servicio que necesita, aunque ni siquiera se concretan los requisitos ni el importe, como sucede en Navarra.

En la CAPV, incluso se contempla la vivienda habitual del usuario como elemento de reconocimiento de deuda en caso de que no pueda hacer frente al pago. Este sistema es inverso.

“Administrazioek urtez urte gero eta politika antisozialagoak egiten dituzte, dirua soberan izan arren”



Queda en evidencia el afán de nuestra clase política por privatizar la red de servicios sociales existentes y dejar en manos de los intereses privados la gestión de las nuevas necesidades. Este es otro elemento común en la CAPV y en Navarra.

A nadie escapa que con estas políticas públicas el sector de los servicios sociales es objetivo de muchos depredadores.

-En resumen...

-No se reconocen derechos, a pesar de lo que digan. Se discrimina a las personas inmigrantes. Exigen que se pague por los servicios a utilizar a pesar de no garantizar una cobertura pública y además favorecen los intereses privados con fondos públicos. La actuación de nuestros políticos vuelve a ser decepcionante, cuando menos.



Imanol Pascual

DIAGNÓSTICO DE LA DEPENDENCIA EN HEGO EUSKAL HERRIA

183.976 personas dependientes


- 107.694 mujeres.
- 76.282 hombres.

Se deja sin cubrir el 85% de la población dependiente

- 10.569 personas atendidas en ayuda domiciliaria.
- 1.984 personas atendidas en centros de día.
- 15.237 personas atendidas en centros residenciales.

Es tan poca a prestación que se ofrece que apenas se cubre el aumento de necesidades

- Del año 1991 al año 2005 el aumento de la población dependiente en Hego Euskal Herria ha sido de 27.000 personas, y el total de personas que reciben atención (bien sea a través de ayuda domiciliaria, centros de día o centros residenciales) es 27.790.



Delegados y delegadas de ELA denunciaron el 25 de enero el carácter antisocial de las actuales políticas públicas

LA LUCHA POR OTRO MODELO DE SOCIEDAD, COMARCA A COMARCA

Diez de las doce uniones comarcales de ELA (Gernika-Durango, Iruñea, Bilbao, Eskumaldea, Ezkerraldea-Kadagua, Ibaizabal-Nerbioi, Donostia, Urola-Kosta, Oria-Goierri, Oarso-Bidasoa y Deba) llevaron a cabo el pasado 25 de enero diferentes actos con delegados y delegadas para manifestarse, más tarde, por los principales pueblos y calles de Hego Euskal Herria. El objetivo: explicar la campaña de denuncia que ELA está llevando a cabo en contra de las políticas públicas neoliberales de nuestras administraciones. Se trata de socializar la necesidad de un cambio de rumbo en la gestión de temas tan importantes para la ciudadanía como la sanidad, la vivienda, los servicios sociales o la fiscalidad, entre otros.

En Iruñea, los delegados/as de ELA, encabezados por José Elorrieta, se concentraron frente a un centro de salud para demandar una mayor inversión en la sanidad pública. "Estamos literalmente a la cola", denunció el secretario general de ELA. "En los hospitales de Navarra había 2,6 camas por cada mil habitantes en 2000, y 2,2 en 2006, lo que supone que baje el tiempo de hospitalización y aumenten las listas de espera", explicó.

En opinión de ELA, los datos ponen muy en evidencia a las autoridades sanitarias navarras, "a pesar de que hay datos que no se hacen públicos, como la parte del presupuesto de sanidad que va directamente a la privada", denunció.

El resultado final, afirmó Elorrieta, es que "a pesar del esfuerzo de los profesionales del sector, la calidad de la

sanidad deja mucho que desear", aunque "se gastan cantidades ingentes de dinero para crear la ficción de que tenemos una sanidad excelente cuando realmente deja mucho que desear en cada vez más campos".

DINERO PARA POLÍTICA SOCIAL

Todo lo anterior –la insuficiente inversión en sanidad, educación y atención a la dependencia– se produce en un contexto, tal como denunció Elorrieta, de reducción de la presión fiscal en Navarra. El secretario general de ELA, criticó que la presión fiscal en Navarra y en la CAPV "sea prácticamente la más baja de Europa, sólo por encima de la de Irlanda" y desveló que la última reforma del Impuesto de Sociedades supone una pérdida de recaudación anual de más de 100

millones de euros. "Dinero que bien podría dedicarse a política social", reivindicó.

Resaltar, finalmente, que en los actos de Iruñea participaron un grupo de trabajadoras y trabajadores del geriátrico de Cortes, en huelga desde hace varias semanas para denunciar los despidos previstos en el plan de viabilidad y la congelación salarial.

EL 15 DE FEBRERO, ACTO FINAL EN BILBAO

Recordar, asimismo, que el acto final de esta campaña tendrá lugar el próximo 15 de febrero a las 9:30 de la mañana en el Pabellón de los Deportes de la Casilla, de Bilbao. Tras diversas intervenciones, los miles de delegados/as y militantes de ELA allí congregados se dirigirán en manifestación hasta la Plaza Circular. ¡No faltes!



Los militantes de ELA en Oarso-Bidasoa realizaron una divertida parodia en la Plaza Ensanche de Irun para denunciar las políticas de vivienda de la Administración.



La sanidad fue el tema que abordaron en la comarcal de Deba. Se denunció la privatización de la sanidad pública y se exigió una mayor inversión en Osakidetza.



Por un sistema de servicios sociales público, universal y gratuito. Zaindua izatea, eskubide. Bajo ese lema en Ibaizabal-Nerbioi se denunció que son muchas las personas que quedan excluidas de los servicios sociales.



En Urola-Kosta se quiso denunciar los enormes beneficios que obtienen las mutuas gracias a la cada vez mayor privatización que padece la sanidad pública.



Constructores, banqueros y políticos pasearon de la mano por las calles de Donostia en una parodia que quiso mostrar los múltiples y oscuros intereses que hay detrás del ladrillo.



En Bilbao ELA trató de socializar la necesidad de un cambio de rumbo en la gestión de los servicios sociales.

Langileen gehiengo zabalak bat egin du Osakidetza greba deialdiarekin

ERABATEKO ARRAKASTA

ELA, SATSE, LAB, CCOO, UGT, ESK, UTESE eta SAE sindikatuak deituta egun osoko greba egin zen urtarrilaren 29an Euskal Autonomia Erkidegoko osasun publikoko zentro guztietan. ELA-arentzat oso arrakastatsua izan da beste behin Osakidetza deitutako 24 ordutako grebak izan zuen jarraipena. Orotara ospitaletako eta lehen arretatako langileen %80ak bat egin zuen deialdiarekin.

ELAK Osakidetza duen arduradun Nere Urrestarazuren ustez kopuru hori oso garrantzitsua da. "Osakidetza greba aurrera eramateko hamaika oztopo jarri ditu. Dekretu bidez inposatu dituen neurri kanpoko gutxienezko zerbitzuak horren lekuko dira, bestak beste. Hori guztia kontutan hartuta hamar langiletik zortzik deialdiarekin bat egitea erabateko arrakasta da".

Urrestarazuk sektoreko langileei mobilizatzeko jarraitzea eskertu nahi die, Administrazioak langileak manipulatzeko erabiltzen dituen argudio eta gezurrei aurre eginez. "EAEko egunkari nagusietan diru publikoarekin sartutako propaganda horren lekuko argia da. Sasi informazio horrekin herritarrak sektoreko langileen aurka jarri nahi ditu Osakidetza, eta langileen aldarrikapenak hutsaldu nahi ditu. Baina, agerikoa denez, ez dute lortu. Osakidetza jarrera lotsagarria da. Kalkulu batzuk egon gara egiten, eta gutxi gora behera 60.000 euro gastatu dituzte publizitatean. Beste behin agerian gelditu da Jaurlaritzak zer egiten duen: propagandarekin estali euren gabeziak".

EAEko osasun publikoa kudeatzeaz arduratzen diren lagunen jarrera salatzen du Urrestarazuk. "Osakidetza argi utzi du beste behin ez duela argudiorik jasangaitza den egoera baten aurrean. Gauza bakarra dakite egiten, eta horretan jarraitzen dute: gezurrak esan eta propaganda egin. Dekretuak ez du lortu sektorea desmobilizatzea, eta langileek argi erakutsi dute beste behin akordio duin bat lortu arte borrokan jarraituko dutela".

Más del 80% del personal de los centros hospitalarios y de atención primaria han secundado la huelga



"QUIEREN PONER A LA CIUDADANÍA EN CONTRA DE LOS TRABAJADORES Y TRABAJADORAS"

Ante la solicitud por parte de Osakidetza de entregar las listas con las personas que secundaron la huelga del 29 de enero, Nere Urrestarazu ha manifestado que es una prueba más del nerviosismo y de la incapacidad de Osakidetza de abordar una salida negociada al conflicto. "Si los responsable de la sanidad pública quieren dar una sensación de transparencia deberían incluir también el número de operaciones que se desvían a la sanidad privada, las pruebas complementarias que también terminan en el sistema privado y el coste anual de la llamada auto-concertación".

Por último, en relación a la publicidad insertada el mismo día de la huelga, Urrestarazu ha denunciado que los datos no se corresponden con la realidad. "En esa falsa información se recogían los supuestos salarios anuales de los diferentes sectores de Osakidetza. Cualquiera que conozca el sector sabe que esos datos son falso, una burda manipulación que lo único que busca es poner a la ciudadanía en contra de la gente de Osakidetza".

Plazer handiz hurbildu ginen urtarrilaren 19an Ainhizera Laborantza Ganbararen hirugarren urtemuga ospatzera. Bertan 800 bat pertsona elkartu ginen Batzar Nagusian, egoitza berrituaren estreinaldian, lagunarteko bazkarian eta ondorengo festan parte hartuz. Hastapena ez zen erraza izan. 2005an sortu zenean, prefetak eta administrazio frantsesak mehatxu egin zuten urteetan Ipar Euskal Herriko laborariak eta jendarteak eskatzen zuten zerbait gelditzeko.

Hiru urte iragan dira eta presioak eta mehatxuak jarraitu arren, Laborantza Ganbara azkartu egin da, zerbitzu onak eta egitura sendoa ditu; jendartearen bere presentzia eta eragina handiago da, eta sortu zenean erabakitako xedea ederki egiten du. Hamar teknikari ditu gaur eta milaka laborariren zerbitzura alor anitzetan ari da lanean, laborantza familiarra, iraunkorra eta kalitatezkoa bultzatzen, lurrarekin eta inguru naturalarekin errespetuz jokatu.

ELAREN PARTAIDETZA

Manu Robles-Arangiz fundazioak 2004an hasi zuen bere ibilbidea Ipar Euskal Herrian, Baionako antena sortuz eta Txetx Etxeberri bertako arduradun izendatuz. Ia denbora berean ELB laborari sindikatuko arduradunek kanpaina bat burutzen ari ziren Laborantza Ganbara eraikitzeko. Hegoaldean zazpi sindikaturekin lan bat egin genuen bonoak saltzen, eta 220 pertsonak hiru urtez bere laguntza emateko konpromisoa hartu zuten.

ELBkoek esan ziguten etxe bat behar zutela urgentziaz bere egoitzarako eta Laborantza Ganbara martxan jartzeko. ELA sindikatuak, Fundazioaren bidez, bere gain hartu zuen behar horri erantzutea. *Zuentzat Hotela* erosi zen Ainhitzen, orain zaharberri dena, eraikina bulego eta bilkura gelaz osatuz, era simple, duin eta erabilgarri batean.

Iholdin eta Zaron ere ikusi genituen etxe batzuek, baina laborari berak erabaki zuten Ainhitzeko zela erabilga-

rriena eta aproposena. ELBkoekin ibili ginen aste horiek ahaztu ezin izango dira guretzako! Militanteak, balio handiko pertsona xumeak, zorte handi bat izan da guretzako hauekin topatzea! Hiru urte hauetan parte hartze zuzena izan du Fundazioak bai "Lagunen" elkartearen eta baita ere Lurramaren antolakuntzan. Eta esan beharra dago gure militanteentzako oso aberasgarria dela engaiamendu hori.

LANA EGITEN UTZI

Ofizialtasuna ez da epe labur batean lortuko. Iruditzen zait Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazio prozesuarekin bat landu beharko dela Laborantza Ganbararen ofizialtasunaren aldarrikapena ere, eta hori lortzeko indarren metatzea ezinbestekoa ikusten dut. Ikuspuntu horretatik, Batera plataformaren zeregina argia da eta orain burutzen/amaitzen ari den erreferendumaren aldeko sinadura kanpainak bere fruituak emango ditu.

Ezin dugu, alabaina, ofizialtasunaren zain gelditu. Epe laburrean lortu behar

duguna Euskal Herriko Laborantza Ganbara jasaten ari den erasoak eta mehatxuak amaitzea eta utzi diezaiotela bakean bere lana egiten, duen status juridikoarekin, "elkarte" bezala, eta jarrai dezala dosierak prestatzen, laborari aholkuak ematen, bere iritzia gizarteratzen,...

Laborantza Ganbarak eguneroko lanerako behar dituen baliabide ekonomikoak ziurtatzea da orain lehentasun nagusietako bat. Eta gure aldetik, orain arte bezala, babes osoa emango diogu, Euskal Herri mailan behar diren kanpainak eta iniziatibak bultzatuz.

Hegoaldeko instituzioak gehiago inplikatu beharko dutela iruditzen zait, hitzetatik ekintzetara pasatuz, Laborantza Ganbaran dutelako "autodeterminatzeko" adibide praktikoa bat.

FERNANDO IRAETA,
Manu Robles-Arangiz Fundazioko zuzendaria



Saioa Igeregi, nazioarteko departamenduko kidea

"BESTE MUNDU BAT POSIBLE DA"

posible dela esateko, Munduko Gizarte Foroak mobilizatzeko deia egin zuen beste behin. Aurten, ordea, mobilizazio eredu aldatu da. Aurreko urteetan munduko hiri zehatz batean antolatu da Gizarte Foroa; azken urteetan, esaterako, Nairobin, Porto Alegren eta Bonbayn izan dira. 2008an lehenengo aldiz erabaki da protesta ekintzak mundu osoan zehar deszentralizatzea eta zabaltzea.

-Euskal Herrian ekitaldi ugari izan ziren. Zer adierazi nahi izan zen?

-Gero eta nabariagoak dira gaur egun politika neoliberalak langileengan dituzten ondorio kaltegarriak. Mundu osoan zehar gertatzen den fenomeno hau oso larria da Euskal Herrian ere. Horren adibide garbiak dira Barne Merkatuko Zerbitzuen Zuzentaraua (Bolkestein Zuzentaraua), porrot izandako Europar Konstituzio Ituna, eta ondorengo Lisboako Ituna.

Zerbitzu publikoen pribatizazioak behin eta berriro ikusten ditugu. Ongizate estatuaren oinarriak pixkanaka suntsitzen doaz, langileen lan baldintzen eta ongizatearen kontura. Ikusi besterik ez dago zerbitzu publiko eta kalitatezko eusteko behar diren inbertsioak nola gutxitzen diren, gizartearen beharrezan aldean eta ekonomiaren bilakaeraren aldean. Gobernuetatik eta erakundeetatik bultzatzen diren politikak zerbitzuak pribatizatzea dute helburu: hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, postan, garraioan...

-ELAk parte hartze zuzena izan zuen aurreko asteko mobilizazioetan.

-Hego Euskal Herrian Europar Batasunaren azken postuetan gaude gizarte-babeseke baliabideei dago kienez; hemen, BPGaren %19a bideratzen den bitartean Europar Batasunean kopuru hori %27koa da. Azkenetarikoa gara osasunean, hezkuntzan edo gizarte-zerbitzuetan; hau da, bizitza-kalitatearen erakusgarri diren arloetan.

Hori salatzea izan zen gure asmoa. Horretarako, urtarrilaren 23an kontzentrazio bat egin zen Bizkaiko Diputazioaren egoitzaren aurrean, Anitza kolektiboak deituta. ELA bertako kide da, ESK, STEE-EILAS eta Harresiak Apurtuz erakundeekin batera. Horretaz gain, gizarte ereduari buruz burutzen ari garen karpainaren barruan Munduko Gizarte Foroaren deialdia barneratu genuen. Bilbon egin zen manifestazioan ere ELAren ordezkari zabal bat egon zen, idazkari nagusia bera ere egon zelarik. Etorkizunean ere beste mundu baten alde mobilizatzeko deia luzatu nahi diegu langileei

Urtarrilaren 26an manifestazio ugari egin ziren mundu osoan zehar Munduko Gizarte Foroak deituta. Manifestazio ezberdinetan bildutako milioika lagunek neoliberalismoaren aurka protestatu eta beste mundu bat posible dela aldarrikatu zuten. Euskal Herrian Bilbon izan zen ekitaldi nagusia. ELAren ordezkari zabal batek parte hartu zuen bertan. Nazioarteko departamenduko kidea Saioa Igeregi ekitaldi honetaz mintzo da.

-Zergatik urtarrilaren 26ko ekitaldiak?

-Iragan astean Munduko Ekonomia Foroko ordezkariak Suitzako Davos hirian bildu ziren, urtero bezala. Horren aurrean, inposatu nahi diguten orden ekonomiko neoliberalari aurre egiteko eta beste mundu bat

"Hay que seguir luchando contra el neoliberalismo y por un mundo mejor"

● Nueva jornada de huelga en el sector de telemarketing

El 28 de enero tuvo lugar la cuarta jornada de huelga en telemarketing. Como en las anteriores convocatorias la inmensa mayoría de las trabajadoras secundó el llamamiento de los sindicatos ELA y LAB. El objetivo de esta protesta es sentar a la patronal del sector a negociar un convenio de ámbito de la CAPV, en un sector en que los salarios son de poco más de 800 euros mensuales y se trabajan 39 horas semanales, incluidos los fines de semana y festivos.

● ELA contra el acuerdo de eficacia limitada en el metal de Araba

ELA rechaza el acuerdo de eficacia limitada que la patronal SEA y los sindicatos UGT y CCOO han suscrito en el metal de Araba. Un pacto que no aborda temas tan importantes como la even-

tualidad, la subrogación de las contrataciones o el contrato de relevo. El acuerdo de eficacia limitada se salta las reglas del juego mayorías, al mismo tiempo que legitima las posiciones de la patronal. El acuerdo que se prolongará hasta el año 2010, se limita a una revisión salarial pegada al IPC previsto por el gobierno, sin tener en cuenta la inflación pasada. La jornada laboral (1735 h) no se reduce a pesar de ser la más alta de todos los convenios provinciales.

● Hezkuntza Saila greba eskubidearen aurka

Joan den maiatzaren 18ko Eskola Publikoaren greban zenbait ikastetxetan sukaldeko langile grebalarien lana beste langile edo enpresen bidez egin zela baieztatu du Lan Ministerioak, ELAk jarritako salaketa onartuz. Ikuskaritzak erabaki du ikerketa gai izan diren hiru ikastetxeetan langileek gauzatu zuten greba eskubidea edukiz hustua izan zela, lan geldialdiak sortutako presioa indargabetuz eta grebalarien lana ez

zegokien pertsona eta enpresen bidez betez. Ikuskaritzaren txostenak argi dio Sailak ez duela Lan Harremanetarako Legea bete eta bidezko prozesu zigor-tzaileari ekingo diola.

● Artetxe despide a 32 empleados

Varios centenares de trabajadores y trabajadoras participaron el 31 de enero en Mungia en una manifestación en solidaridad con los 32 despedidos de la ETT Manpower que venían realizando labores habituales de producción en la empresa Artetxe de esta localidad, y que habían sido calificados como fijos, en primera instancia, por el Juzgado de lo Social de Bilbao y, posteriormente, por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

La sentencia dictaminó que se estaba produciendo una cesión ilegal de trabajadores y, por tanto, estos trabajadores y trabajadoras deberían de pasar a formar parte de la plantilla. La sentencia es

extensiva a otros 52 empleados y empleadas del centro de trabajo que Artetxe tiene en Zamudio.

● ELA muestra su solidaridad con los detenidos de ELB

ELA expresa su solidaridad a ELB (Euskal Laborarien Biltzarra) y a los seis militantes de este sindicato de agricultores de Ipar Euskal Herria que fueron arrestados el 30 de enero y puestos en libertad tras permanecer día y medio en comisaría, acusados de desórdenes y agresiones durante la acción de protesta que protagonizaron el 17 de enero en Donapaleu (Nafarroa Beherea), exigiendo a SAFER la continuidad en la explotación del caserío Kako de Ainharbe (Zuberoa). ELA invita a manifestarse ante el Juzgado de Baiona el 21 de febrero, fecha en la que serán juzgados, como protesta por esas detenciones que sólo buscan manchar el buen nombre de ELB y sus militantes, y exigir su libertad sin cargo alguno.

www.ela-sindikatu.org